

Ez genuen behar, orain ezin gara bera gabe bizi

**Maidor Iantzi
Goienetxe**

Hara hor mutil bat. Gustatzen zait. Bera izanen da? Galdetuko dut. Bera al da?». «Zuzena da». «Nire lehenengo aldia da». «Nire ere bai» (irribarrez). Eroso nago, mugimendua hasi zait sabelean eta behe-ago. «Kontsultatuko dugu iraupena?». «Ados. Biek batera, bai?». «Bat, bi eta hiru: 24 ordu! 24 ordu bakarrik?».

Denbora eskasa disfrutatzeko lehenbailehen afaldu eta etxera goaz, bakoitza gure gidaririk gabeko ibilgailuan. Komun-ean sartu eta galdera: «Posible dut?». «Galdera zabalegia. Zehaztu zertaz ari za-

ren». «Oheratu gaitezke jada?». «Hori zuen esku dago».

Ohean etzanda gaude biok, gora begira, elkar ukitu gabe, eskua hartu diodanean. Norbaitek ezagutuko zuen agian istorioa. “Black Mirror” telesailaren kapitulu baten hasiera da. Protagonistek mugikor bati egiten dizkiote galderak, aplikazio bati. Honen esku uzten dute bikote perfektua bilatzea eta unea ailegatu artean hainbat harremanetatik pasatu behar dute. «Nola moldatzen ziren sistemaren aitzinetik harremanak izateko?», galdetzen diote bata bertezari.

Nola moldatzen ginen Whatsapp izan aurretik? Mugikorrik gabe bizi zineten? (gazteenen harridura). Non erakusten zenukizuen joan-etorrietako argazkiak? Non ibiltzen zineten txutxu-mutxuka? Sarri idatzi dut gauza bera, baina oraindik harridura eta tristura sortzen dit kalean ingurura begiratu eta jende guztia burumakur ikusteak, traste baten mende. Ez genuen behar, ez zen gure beharrik asetzeko sortu, ez dakigu bertze aldean nor dagoen. Zein mundu ari gara eraikitzen? Etxeko atea irekita uzten zen lehen eta orain alarma jartzen dugu. •

Eutanasia

**Xabier Mikel
Errekondo**

Hogei urte bete dira Ramon San Pedro hil zela. Hil egin zen? Bere burua hil zuen? Heriotzara lagundu zuten?...

30 urte eman zituen ohean tetraplegiko eta bereziki borrokatu zuen eutanasiaren alde. Datu aitortua da bikote-kideak zianuro potasikoa eman eta hiltzen lagundu zuela, baina garrantzitsuena da kontzientzia berak jarri zuela, erabakia berak hartu zuela.

Erligioak eta eskuineko pentsaera atzerakoiak badute errurik. Gure bizitza gurea ez eta Jainkoari alokatutakoa delako sinestara nahi digute eta bizitze-

ra kondenatu, sufrimenduak erredentzioa baitakar... Horrela, hain katolikoa izan den gizarteak behar larri-erietako bat konpondu gabe du.

Baina, hil nahi duena bizitzen jarraitzea behartzea ez al da bizi nahi duenari bizia kentzearen pareko?

Zorionez jendarteak aldatu da, ordea. Kasu, espainiarren %84 eritasun sendaezina duen gaixoari borondatezko heriotzara medikuak laguntzearen alde dago. Tokitan dago baina legea, erlijioari lez, naftalina usaina dario eta Estatuko Zigor Kodearen 143. artikulua delatutzat du eutanasia.

Lasaiago biziko nintzateke heriotzara lagundu lekidakeen Eutanasiaren Lege gizatiar bat izango bagenu. Benetan baina nire bizitzaren jabe, gaixo terminala izan ala ez, bizitzari akabera emateko erabakiak nire eta ez beste inoren esku behar luke.

Bizitzaren amaierak beldurtzen gaitu. Sufrimenduz hiltzeak beldurtzen gaitu.

Kirolean lez, jokaldi aparta litzateke hurrengo gertakariari aurre hartzea, heriotzaren zain gelditu gabe bila joatea.

Nola hil erabaki ahalko banu... •